


Nafarkaria

Nafarroako gehiagarria / Ostirala, 1994ko uztailaren 22a / IV. urtea / 136. zenbakia

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Neuraldia

Nafarroako gehiengo bati bost axola zaio, multzo haundi bati nazka ematen dio eta gutxiengo batek soilik —zorioneko herenaren ia erdiak— beretzat hartzen du:

Ikurrina. Erresumako alkandora urdindu eta txapel gorridunek ez zuten ja ere atsegin eta astindu bortitza eman zioten 36an; etxean barrena zein mugetatik kanpora. Ederki asko izanen dute gogoan oraindik Irungo eta Bilboko agure abertzale eta errepublikarrek. Beharrik! 70. hamarkadan, aldiz, distiratsu ibili zen gure artean, maiz gorriarekin batera, askatasuna eta utopia posibleak zirela agerian utziz. Urralburuk eta beretarrak ihesi egin zioten lasterrean. Hola gauzak, ofiziala izatetik ez-ofiziala izatera pasatu zen 80.ean. Amaitua zen ordurako nafar sozialisten mugimendu taktikoa eta bazen une aproposa, bada, UPN-ren zio eragikorra-ekin bat egiteko: Nafarroa Nafarroa deneko tautologia gogaikarriarekin. Bapo! Harrez geroztik, itzaliz joan dira ikurraren koloreak Nafarroan, haren eramaleen indarrak eskastuz joan diren tamaina berean. Azken hauteskundeak, esandakoaren lekuko: %15era ere ez gara ailegatzen. Elementu sinbolikoa ongi egokitu da, beraz, errealitatera, biak parean daudela. Minoria izatearen harropuzkeria inozoa: lehen gutxi ginen, orain gutxiago, lehenago zauriturik, eta orain ere bai, baina, lasai, jatorrak arras jatorrak! Gõzoa jarri zaigu!

Kontu sinbolikoen haritik, goi mailako sinbolo gisa ere ageri zaigu Udako Euskal Unibertsitatea. Eta ez da arrazoirik falta, alajaina, hola pentsatzeko. Nirekiko ari naiz galdetzka, ordea, ea Larraonakoak ez ote duen hutsune potolo bat jakintza atalei dagokienean. Nire irudiko, hiru atal hiru baitira egitarauari erantsi beharrekoak: Euskeraren Egoera Larriaren Saila batetik, Abertzalego Porrotaren Hausnarketarako Saila bestetik eta azkenik, Zer Ote Da Nafarroa: Erregioa ala Kontinentea? Hiru sailok Nafar Mariskalaren gidaritzapean zuzendurik. Psikologo, Psikiatra eta Lauburu Gorriko zerbitzurik ere izanen zen, derrigor. Ukatu ezinezoa da, duda gabe, distira espeziala emanen lioketela Unibertsitateari, non marru eta jario haundiko negar malcoen artean, napar eta gainerako deprimitu, frustratu eta negartiok hamabost egunez gustora bildu eta patxada ederrean konpon genezakeen horren asaldagarria den situazio hau.

80. hamarkada amaitzeaz zelarik, 'Emak Baita' taldeak 'Henry Bengoa, inentarium' ikuskaria eszenatokiz-eszenatoki taularatu zuen Euskal Herrian barna. Bernardo Atxagaren kontakizunean oinarrituriko muntaiak euskal kulturari ekaitz handi samarra piztu zuen. Orduko trumoiaren azken oihartzunak amatatu direnean, Manolo Gil bideo-gile iruindarrak, Maria Angeles Amorenarekin elkarlanean, Atxagaren kontakizuna berrartu du, horretan oinarriturik 12 minutuko animazio laburmetraia egiteko. Istorioak txunditurik, eta arestiko liskarrak aintzat hartu gabe, «margo bizidunak» egiteko asmoa du Gilek.



MANOLO GIL, INVENTARIUM

GURE AUKERAK

ERAKUSKETAK



Baztango artisauak izeneko erakusketa zabalik dago Elizondo-ko Arizkunenea Kultur Etxean. Material ezberdineko eskulturak ikus daitezke, zura, harria eta burnia besteak beste. Arratsaldeko 19.00etatik 21.00ak arte ikus daiteke, uztailaren 29a arte.

ANTZERKIA



Kollins Clown antzerki taldeak 'Bienvenidos al Oeste' izeneko lana taularatuko du asteburu honetan Orisoain, Etxarren, Soraureren eta Zaraitzu-Espartzan. Herri Herri kanpainaren barruan, gaur arratsaldeko 20.30etan Orisoainen izanen dira, eta bihar, ordu berean, Etxarrengo plazan. Igandean, hilak 24, Soraureren plazaratuko dute beren lana, 20.30etan, eta astelehen arratsaldeko 18.00etan, berriz, Zaraitzu-Espartzan.

Aparrezko pailazoen jaia izango da asteburu honetan Sakanako zenbait herritan, bertan antolatutako Kultur Zikloaren barruan. Bihar, uztailak 23, Ihabarren ospatuko da, arratsaldeko 19.00etatik aurrera, herriko plazan. Heldu den asteazkenean, uztailak 27, Olaztin izanen da, herriko jaietan, arratsaldeko 17.30etan hasita. Jaia Kasinoan antolatuko dute.

ZINEMA



'El oso' izeneko filmea eskainiko dute asteburu honetan Arreitza, Nabaskoze, Untzue eta Iguzkitza herrietan, Herri Herri kanpainaren barruan. Gaur gaueko 22.00etatik aurrera Untzuen eskainiko dute, herriko plazan, eta bihar ordu berean Iguzkitzan izanen da. Igandean, uztailak 24, Arreitza herriko ikusi ahal izanen dute, eta astelehenetan, berriz, Nabaskoze herriko, bietan ere gaueko hamarretan.

Haurrentzako pelikula bat eskainiko dute igande honetan, uztailak 24, Irañeta herrian, Sakanako Kultur Zikloaren barruan. Gaueko 22.00etan hasita, herriko plazan izanen da.

DANTZALDIA



Dem ak tey Lougakoa (Senegal) eta boey teyman Tel Avivko balet taldeen emanaldia izanen da gaur, uztailak 22, Tafallako zezenplazan. Ekitaldi honen amaiera emanen diote asteon izan duten Nazioarteko Dantza Folklorikoaren Jaialdiari. 22.30etan hasita, sarrerak 300 pezetan salduko dituzte.

NAFAR KRONIKA

ANA UNANUE


Remake

Aspaldi ari ziren deika eta hala ohartarazi zigun Aingeru Epalzak iazko 'amen eta omen' batean. Aspaldi ari ziren laguntza eske Itoizko urtegiaren defentsan argudiorik gabe gelditu diren horiek. Eta eskatzen duenak lortu egiten du —edo asmatu, oraindik ikusteko dago—.

Demagun egiazkoa dela Uharteko egunkariak

KASek Itoizko urtegiaren aurkako borroka areagotzeko estrategia tajutu zuela udazkenean. Eskusiba ez dago gaizki uda parterako —badakigu urteko sasoi honetan lehorrean itotzen direla erredakzioak eta Itoiz udako gaia bihurtzera deitua zegoela—, baina, hala ere, ez dakit nahikoa izango ote den Irurtzun-Andoain

ko lituzkeela eta proiektutik espero diren etekinak bere kostua eta eragin ekologikoa nekez justifikatzen dutela ahazteko. Ez dakit azken finean Brusselan pilotutako txostenak 'Estatuko arrazoiez' estali ondoren Itoizko Koordinakundearen kexa-salaketa atzera botatzeko nahikoa izango ote den. Hala balitz, neuk idatzi nezake filmearen gidioia,



kaleratutako informazioa. Klabe sekretuen kontuak (H-A: herrialdeko KAS; I-M: Itoizko Koordinakunde; E-M: Eguzki; E-P: Egin) komentatu ez dakit, baina hunkitu behintzat zinez hunkitu nau Historia eta geroko garai goibel hauetan. Demagun, beraz, egia dela

autobidearen remake itxuroso bat osatzeko, funtsezko pertsonaiak eta elementuak falta baitzaizkigu (Urralburu, Aragon, mehatxuak, atentatuak, odola).

Ez dakit argitaratutakoa nahikoa izango ote den urtegiak legez babestua dauden hegazti eremuak (zepa) ureztatu-

ezaguna dut eta. Milaka milioi pezetako adjudikazioak, segurtasun enpresak Irati inguruan, komisioak eskupetik eta, lanak bukatzean, askatasunaren eta demokraziaren omeneko monumentuaren inaugurazioa. Diskurtsoak eta txaloak. The end: gidioaiaren sosekin erbesterratu egingo naiz.

ASTEKO PERTSONAIAK



Kepa Altonaga
UEUko zuzendaria

Aste honetan hasi da Iruñean Udako Euskal Unibertsitatearen 22. edizioa, Baionako emanaldia bukatu, eta ohizkoa denez, uztailaren bigarren hamabostaldia igarotzeko. Osotara, 28 ikastaro antolatu dituzte aurtengo eta aurreko urteetan baino matrikulazio gehiago izan dira, 700 inguru. Kepa Altonaga UEUko zuzendariak egin zuen aurtengo edizioaren aurkezpena, Jose Maria Rodriguez Otxoa Nafarroako Gobernuako ordezkaria eta Jose Mari Zeberio Jaurilaritzakoaren ondoren. Guztien laguntza eskertu ondoren, UEUren «euskara eta Unibertsitatea uztartzeko ahaleginak» nabarmendu zituen, urte hauetan eman diren aurrerapausoak azpimarratuz. Uztailaren 30era arte beterik izanen da Larraona Ikastetxea, udan ere ikasteko aukera baitago Iruñean.



Serafin Zubiri
Abeslaria

Azken hilabete hauetan mendizale amorratu bihurtu ondoren igo dituen mendiengatik aipatzen dute komunikabideetan Serafin Zubiriren izena. Aste honetan itzuli da Afrikako Kilimanjaro 5.895 metroko mendia igo eta gero, Mari Abrego mendigoizalearen laguntzarekin. Urtarrilean Aconcagua igo zuten, beste itxu batzuekin batera, eta uztailaren Mont Blanc mendian izan zen. Ez zen, ordea, horrekin konformatu, eta Abregorekin batera, Kilimanjara joatea erabaki zuen. Inolako arazorik gabe iritsi zirela gailurrera azaldu zuen Zubirik, «iritsi ginen uztailaren 14an eta ordubete pasa izan ginen goian, hitz egiten eta abesten. Ongi egin nuen igoera eta pozik negoen». Mendi gehiago igozteko asmoa duela azaldu zuen, ahal duen neurrian, noski.

AHAZTU GABE!

TXIRRINKA MARTXAN



Txirrinka 94 izeneko bizikleta martxa antolatu du Eguzki talde ekologistak asteburu honetarako. Itoizko urtegiaren aurka prestatutako martxa hau gaur eguerdian abiatuko da Iruñetik, Gaztelu Plazatik hain zuzen, eta hirian barna itzuli bat egin ondoren Txantrea zuzenduko dira, bertan bazkaltzeko. Arratsaldeko bostetan, berriz Gaztelu Plazara itzuli eta Burlata, Atarrabia, Urrotz eta Artieda pasatuta Irunberrira iritsiko dira, bertan gaua egiteko. Bihar Nabaskoze, Burgi eta Garde bisitatuko dituzte, eta gaua bertan eman ostean, igande goizean Erronkari, Izaba eta Otsagi herriak zeharkatuko ditu bizikleta martxa berezi honek. Arratsaldean, berriz, Ezkaroze-Abaurregaina-Arribe zatia osatuko dute. Nahi dutenek Iratitik barna egin dezketen zati hau. Azkenik, Itoizera helduko dira astelehenetan, urtegiaren lanetara, manifestaldia egiteko. Martxan parte hartzeko 7.000 pezeta edo 350 libera ordaindu behar dira, bazkariaren eta lo egiteko lekuaren truke.

jenero xumekoak

Elurra Martzelogradoko kanposantuan

Inon ere ez dago horrenbesteko alderik bizirik herioraino eta inon ere ez da sentitzen hemen bezala atsenaldi betiraunkorren isiltasuna.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Imotz

Herriko eguna ospatuko dute etzi

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Imotz, Atetz eta Odietak euren eguna ospatuko dute igandean. Urtero bezala, egun batez jai izango dute herriek eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte hirurek egun biribila igaro ahal izateko. Dantza, txistu eta danborren hotsen artean jaikiko dira, zailtzarik gabe, bertako biztanleak.

Imotz kasu aparta da, egun bakarrek konformatu ez eta larunbata eta astelehena bitartean ospatuko baitu bere 'eguna'. Aldaketa honen protagonista Tuxuri izeneko gazte talde berria da. Ekainean sortua, aurten konfirmazioa egin duen gazte taldearen ideia izan da. Bertako kidea den Txemaren ustez, «guztiz beharrezkoa zen halako talde bat sortzea». Bere ustez, «gazteok zerbait egiteko beharra bage-nuen». Ekainaren 6an bere lehen bilera nagusia egin zuen Tuxurik eta bailara osoko jendea hurbildu zen bertara Honela, Imozko eguna ez da antolatuko duten ekitaldi bakarra, «euskara ikastaroak, mendi irteerak, erakusketak, antzerkia» eta bestelako ekintzak prestatzeko prest agertu da Tuxuri.

Imozko egunari herri afariak emango dio hasiera bihar, gaueko 9.30ak aldera, Etxalekuko zentroan. Igandean haurrak izango dira protagonista eta joakoak, moztorro txapelketa eta txokolatada izango dute euren



Dantza, danbor eta txistu hotsen artean jaikiko dira etzi Imotzen.

gozamenerako. Astelehenean, azkenik, Meza Nagusia goizean eta eguerdi eta arratsalde partez herri kirolak eta herri bazkaria. Ongi afaldu ondoren, antzerkia ikusteko aukera izango dute Imozkoek, Tuxuriko kideen esku.

Atetz bailarak, berriz, hirugarren aldiz ospatuko du aurten bere eguna. Bailara txikia izan arren, urte batetik bestera indar

berria hartzen du jaiegun honek. Bertan ere Meza Nagusiak emango dio hasiera ekitaldiari, Aurreku dantza barne. Ordu bietan herri bazkaria egingo da eta ondoren, Lesakako 'Tantirumairu' ikastolako dantza taldeak emanaldia eskainiko du. Eta gauean, herri afaria eta musika.

Odietak 8. urtea izango du aurtengoan. Festa egun hau guztiz

sustraiturik dago herritarren artean eta gazteek ere gero eta gehiago hartzen dute parte, arduradunen arabera. Beste bietan bezala, herri bazkariak bilduko ditu herritar guztiak eta goizeko Meza Nagusia eta haur jokoez gain, arratsaldeko zazpiak inguruan Alizia Zigandaren kantaldia izango da. Dantzaldiak eta txistorradak emango diote amaiera Odietako egunari.


Bera

Martin Benitoren margoak ikusgai Gure Txokoa elkartearen

E. E. / IRUÑA

Herriko festak direla eta, Jesus Martin Benito pintorearen omeneko erakusketa antolatu du Gure Txokoa Elkarteak. Berako Udalaren laguntzaz, uztailearen 31tik, abuztuaren 7ra bitartean. Martin Benitoren koadroez gain, Antton Mendizabal eskultorearen lana ere izango da ikusgai Beran.

Jesus Martin Benito Buñavistan (Salamanca) jaio zen 1912ko urtarrilaren. Hilabete gutxira bere familia Erreteriarra joan zen bizitzera eta hau dela eta, bertakotzat jo zuen beti bere burua Martin Benitok. Hemezortzi urtekin Parisera joan zen eta bertako hainbat arte eskolatan ikasi zuen, horien artean, Montmartreko Akademia eta



Antton Mendizabalen eskulturak ere ikusgai izango dira. E. KOCH

Parisko Eskolan. Parisen ibili ondoren, Madrilera joan zen eta Espainiako Gerra Zibileko urteak pasata, Pradoko Museoan berriztatzaile gisa lan egiteko aukera izan zuen, lan nabarmena eginez. Buenavistan ere egin zuen lan eta 1954an bertako elizaren erretabloa berriztatu zuen.

Martin Benito Madrilgo, Margolari eta Eskultoreen Elkartearen kide izan zen, baita Espainiako Aquarelisten Elkartearen kide. Bere jaioterrian ere, Buenavistan, seme kuttuna izendatu zuten. 51 urte zituela hil zen Madrilan 1963. urtean.

Iruña

Jaiak gartzelara ailegatu dira

IRUÑA

Uda giroarekin batera, hainbat herritan eztanda egin dute bertako bestek eta jai giroan ere, ez dute intsumisoekiko elkartasuna alde batera utzi nahi izan. Hala nola, Sakanako Talde Antimilitaristen esku, Olazti, Bakaiku eta beste hainbat herri txupinazo alternatiboa botako dute Iruñeako espetearekin parean.

Ez da hau jaiak ekarri duten intsumisoekiko elkartasuna adierazteko ekintza bakarra. Iruñeako San Ferminetan ere, txupinazo alternatiboa antolatu zuten intsumiso presoen alde. Hauek patiora atera behar zuten baina espeteke zuzendariak ez zien baimenik eman eta, hori dela eta, Espeteke Epaileari gutuna bidali diote egoera salatuz. Jaiak, beraz, gartzelara ailegatu dira eta intsumisoak ere badira protagonista.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta



Orgasmo bat, faborez

X generazioa gora eta behera, Euskal Herriko lumarik trebe- nek tinta dexente ixuri dute azken bolada honetan. Gutxiatik bada ere, ez naiz ni urrezko burmuin horien artean, baina, hala ere, atrebentzia ez delakoan nik ere gaztetxo horiei buruzko ene aburuak plazaratuko ditut txoko honetan. Horren zergaitia argi bezain garbia da, hemen hiriko gaua da aztergai, eta, gau-txori hutsak dira zorioneko x gazte horiek.

Egia esanda, atzerakoi samarra eman lezake botako dudana aburua, baina horrek ez nau izutzen, Muguruza komandanteak dioen legez, itxurakeriei stop esateko tenorea heldu baita. Ene uste apalean, ohiturarik zaharrenenganako errespetua galdu dute gaztetxo horiek. On Alberto Barandiaranek behin idatzi zenez, ez dakite Cicatriz taldea existitu zenik ere, ez eta Hertzainak nortzuk ziren, eta, larriagoa dena, alkohola eta sexua batzeko kapaz dira sakrilego tematsuhoriek. Jarraian datorren pasadiazua da horren adierazgarri ezin hobe.

Lerro hauek idazten dituen gixarajoa harrিতa geratu zen joan den egunean, Sanfermin akitu berrietan, EGUNKARIAren barrakan zerbitzari lanetan ari zelarik. Hamabost, hamasei urteko neskatok «orgasmo bat, faborez» eskatu zion. Euskaldunok horrelakorik ez dugula erantzutear nengoelarik, geratu zitzaidan memelo aurpegia ikusita, neskatoak azalpen gehiago ematea erabaki zuen. «Que no te enteras, melokotoi likorea piña zukuarekin nahastuta».

Edateko zikinkeriak asmatzeko trebezia, behintzat, ezin die inork uka x gazte. Orgasmozalearen cocktail-a gutxi balitz bezala, koadrila bereko beste neskatok bioniko batek jarraian kalimotxo melokotoi likorearekin nahastuta eskatu zidan. Anabasarri ez zion izen berezirik eman. Dena dela, hori irensteak urdaiean eduki ditzakeen ondorioak kontuan hartuz, 'coitus interruptus' litzateke izendapenik egokiena.

Kra!

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑA

Manolo Gilek bera gizon bisuala dela, hizlari traketsa dela esaten ohi du. Irudien bitartez hitzen bidez baino askoz hobeto mintzatzen dela errepikatzen du behin eta berriz. Irudiekin trebea dela ez dago ukatzerik, orain arte egin dituen 34 bideo-klipak eta 40 disko azalak horren lekuko. Hitzekin baldarra dela, berriz, ez dago horren argi. Elkarrizketak hiru ordu laurden irauan zituen, eta denbora horretan bere hitz jarioaren bitartez 14.000 irudi sartu zituen buruan. 'Henry Bengoa, inventarium' animazio laburmetraia osatuko duten irudi guztiak hain zuzen. Gutxi gora-behera 311 hitz minutu bakoitzeko. Hizlari trakets batentzat ez da marka batere makala. Esasera zahararen arabera, mila hitz ez dira aski irudi bakarria behar bezala azaltzeko, beraz, atera kontuak...

Gilen hitz jarioak fedea zuen iturburu, eskuartearen darabilen proiektuarenganako fede itsua, eta horrek indar berezia ematen zien bere azalpenei, fede berri baten mesiasaren mintzoaren indarra. Gainera, bigarren zabalguneko udal azokako barazki saltzailea du ama, eta, beraz, saltzaile trebe odola gordetzen dute haren zainek. «Gauza asko irakurri, ikusi, entzun ditut, eta gutxitan gertatu zait Bernardo Atxagaren 'Henry Bengoa, inventarium' istorioarekin gertatu zaidana. Txunditu nau, berataz maitemindu naiz, eta kontent naiz, zoriontsu».

Bernardo Atxagaren kontakizuna kasik kasualitatez heldu zen bere esku artera, edo, hobe esanda, bere belarrietara; izan ere, irratiz izan zuen estreinakoz Henry Bengoaren berri. «Ostiraleroko bezala, Eguzki Irratia entzuten ari nintzen, Patxi Huarteren Babilonia saioa hain zuzen, eta istorioa nola irakurtzen zuen entzun nuen. Ez dut euskera behar bezala ulertzen, baina hala ere, berehala antzeman nuen istorio oso berezia zela». Liburuaren gaztelaniazko bertsiola eskuratu eta istorioa irakurri bezain pronto, horrek lan egitea erabaki zuen. «Buruan sartu zitzaidan, oso sakon gainera, eta etengabe haren inguruko irudiak sortzen zitzaidan buruan». Aurretik Maria Angeles Amorenarekin animazio laburmetraia egiteko asmoa zeukan. Istorioa erakutsi zion, eta biok batera aurrera egitea erabaki zuten.

Gilen hitzetan, honako hau da Bernardo Atxagaren istorioaren sinopsia: «Hiru lagunek Hamburgora joandako Henry Bengoa faltan bota, eta haren bila joatea erabakiko dute. Orduetik eta Bengoaren azken etxebizitzara heltzen diren arte, gure bizileku hau nolakoa den deskribatuko dute. Henry Bengoa ez dute topatuko, baina, etxebizitzan aurkituko dituzten gauzen inventariuma eginez, Bengoaren isto-



Gil: «Gutxitan gertatu zait istorio honekin gertatu zaidana. Txunditu nau, berataz maitemindu naiz, eta kontent naiz, zoriontsu».



Gilen hitzek fedea zuten iturburu, eskuartearen darabilen proiektuarenganako fede itsua, indar berezia ematen zien bere azalpenei, fede berri baten mesiasaren mintzoaren indarra.

ria osatzea lortuko dute». Gilen aburuz, Atxagaren idazkian istorioa bera bezain garrantzitsuak dira sugerentziak, klarki azaltzen ez diren gauzak. «Istorioa irekia da oso, eta bide ezberdin asko zabaltzen ditu. Kontakutudana, gidoian bildu duguna alegia, eta azkenean egiten duguna oso ezberdina izan daiteke».

Gauzak horrela, Gilek eta Amorenak istorioaren gidoia, *story board*-a, prestatu zuten, planoz-plano, eszenaz-eszena. Gilek, bideo-klip bat prestatzeko orduan egiten duen bezala, plano horiek banan-banan marraztu zituen —jakina, burmuin bisuala du Gilek—. Marrazki horiek homitzen dute, hain zuzen ere, honako erreportai hau. Gidoiaren arabera, laburmetraiak hamabi minutu iraundera ditu, eta orotara 14.000 irudi ezberdin

ikusi ahal izanen dira denbora horretan. Gilen esanetan, «marrazki bizidunak baino gehiago, margo bizidunak izanen dira». Efektu hori lortzeko textura bereziko papera erabiliko dute. Horretaz gain, margo akrilikoz koloretzatuko dituzte irudiak, eta kolore apal eta kontraste handiak lortzen saiatuko dira. Hori gutxiat kontakizunaren dramatismoa azpimarratzea espero dute. Hamalau mila marrazki horietatik 5.760 eskuz egiten dituzte Gilek eta Amorenak. Marrazki horiek eskanerraren bitartez, Apple Mackintosh ordenagailuan sartuko dituzte, horretan animazio programak erabiliz, gainontzeko 14.000 irudiak sartzeko. Adobe Photoshop V 2.5.1 eta Painter V 2.0 softwarea eta Quadra 700, Centris eta LC II eta Scanner Microtek 600 ZS har-

dwarea erabiliko dute lan horretan. Irudi guztiak lortu eta gero, 35 milimetrotako pelikulara pasatuko dute ITP enpresan Kineskopado sistema erabiliz. Gero, Edertrack enpresako aktoreek pertsonaien ahotsak bikoiztuko dituzte, eta halaber, enpresa berak Txema Artetak konposatutako musika sartuko du soinu bandan. Orotara urte bete beharko dute, gutxi gora-behera, lan horiek guztiak burutzeko. Horien fruitua hala zinema aretoetan nola telebista kateetan izan ahalko da ikusgai.

Gil eta Amorena egunotan hasi dira lehen irudiak prestatzen, baina hori egin aurretik Bernardo Atxagarengana jo zuten, aurrera segitzeko haren baita lortzeko xedearekin. Kostata lokalizatu zuten, eta bilduraren bildurrez aurkeztu zioten proiektua, «haren erantzuna ezezko borobila izatea litekeena baitzen». Atxagak, ordea, harrera ezin hobea eman zien. «Bere istorioa erabat birindu, eta haren apurrekin beste bat eraikitzen ari gielako pentsatuko zuela uste genuen. Berak, baina, lana gustukoa zuela eta lan egiteko askatasun osoa ematen zigula esan zigun». Atxagak sikiera ez zuen aurrekontuan berarentzako prest zen diru kopurua onartu nahi izan. «Proiektua ez zuela oztapatu nahi, eta diru kopuru proiektuan bertan inbertitzea nahiago zuela esan zigun. Haren portaera benetan eskergarria izan da».


Azkenik, irudiekin hasi aurretik erroka latzenari aurre egin zioten, sosak biltzeari hain zuzen. Ez zen ez erroka makala, euren kalkuluen arabera, 6.323.150 pezeta beharko baitituzte proiektua gauzatu ahal izateko. Lehenik eta behin, beste 41 proiektuekin batera, Nafarroako Gobernuaren zinemagintzarako laguntzak eskatu zituzten. Diputazioetik 2.250.000 pezeta lortu zituzten, Jose Antonio Vitoriak bezalaxe.

Momentuz diru laguntza hori besterik ez dute patrikaratu, baina Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan dabilta, eta hortik ere sosaren bat lortzeko itxaropena dute. Duela hiru hilabete Euskal Mediako ordezkari batekin bilera izan zuten, eta gidoiaren lehen erdia erakutsi zioten. Heldu den abuztuaren bigarren erdia aurkeztuko dute erakunde publikoko ordezkariaren aurrean, eta orduan ikusiko da ea Gasteizko Gobernutik laguntza jasotzerik izanen duten ala ez. Diru kontuak diru kontu, Gilek eta Amorenak ez dute amore emateko asmorik, eta jaurlaritzaren laguntzaz zein laguntzarik gabe aurrera egiteko asmoa dute. Esan bezala, jada lanean hasi dira. Aurretik 14.000 marrazki eta urte beteko lana daukate.


PLANO 15



PLANO 15



PLANO 15 FRAMES 240



PLANO 16 FRAMES 168



Gilek eta Amorenak Atxagaren kontakizunaren dramatismoa azpimarratu nahi dute euren marrazkien bitartez. Horretarako textura bereziko papera eta margo akrilikoa erabiltzen ari dira. Gilen hitzetan «ez dira marrazki bizidunak, margo bizidunak baizik».



Manolo Gil.

«Aurrerapausoa da»

J.K.L./IRUÑA

Negu Gorriak, Barricada, Tahures Zurdos, Zarama, La Polla Records, asko eta asko izan dira Manolo Gilekin elkarlanean aritu diren musika taldeak. Horiek guztiak orotara 34 bideo-klip eta 40 disko azal egin ditu. Bere bizitza profesional osoa besteen lanei irudiak paratzen igaro du. Honako hau izanen da, hain zuzen ere, irudiak enkarguz osatuko ez dituen lehen aldia. Beste maila bat igoko du, maila handi samarra, irudien bitartez istorio propio eta luzeak kontatzera daraman eskailera luzean, zinema egitera daraman eskaileran hain zuzen.

Berak, dena dela, zinema hitza aipatu zitzaionean ez zuen erantzun gardenik eman. «Nik bizitza honetan gauza bakarra lortu nahi dut, bizitza bizitzea hain zuzen ere, zoriontsu izatea». Zoriontasunaren filosofia sasi-budista horretan murgildurik, ez omen dauka inolako presarik. «Nik badakit zein den gehien gustatzen zaidan lana, eta horretan ari naiz. Urte franko daramatza hemen, eta aski ongi dakit gauza bakoitza egiteko une egokia itxaron behar duzula. Hemen diruak garrantzi handia dauka, eta ezin duzu jokoan parte hartu baldin eta karta on bat ez badaukazu. Karta ona lortu dut eta hau egin dut, eta beste karta on bat lortzen dudanean beste jokaldi bat egiten dut».

Gauzak horrela, jokaldi honetan bere buruari zenbait gauza erakusten saiatuko da. «Lan honetan mugimendua, argia, pertsonaiak, guztia kontrolpean edukiko dugu. Modu horretan zerbait kontatzeko gai ba ote garen ikusi ahal izanen dugu. Ez dugu arrakasta lortu nahi, inguruko jendeak ongi dagoela, onargaria dela esatea aski litzateke. Hori lortuko bagenu, orduan beste moeta batetako pertsonaiak nola mugi ditzakegun aztertzen hasiko ginatke. Horretarako, baina, aski ongi jakin beharko dut jendeari zer eskatu nahi dioen, oso ongi jakin beharko dut zer dudana buruan. Lan honek Fiori guztia argitzen lagunduko dit».

mintzoak

Artozki

● Betidanik lakat izan dut Artozki, zuzen ez dakidalarik zerengatik. Aezkoatik saustan eta Irati ugaldeta segituz mehar eta ilun da bidea, dena oihan, harregi xut, oro malkar.

Supituki, mendiak idekirik, hor agertzen da Artozki, ugaldetaz bertaldean, zabalko argitsu ederrean emana. Kolora ere bertzelakoa da, berdetik horixkara iraganik garria nagusi beita alorretan. Funtsean bapateko aldaketa honek harritzen ninduen gehien herri-
tik bizikletaz joaten ginelarik.

Inguruarri so egitean iduri luke sekulan ez dela deus gertatez bazter lasai hortan, eguneroko laborari beharretan tink, baina ez da beti hala izan. Urteetan barna herriak gertaera latz eta larriak mointioka ditu pairatu. Duela gutxi idatzit nuen bezala, hemen ere iraganeko trajedien plazan gabiltza ustekabean.

1872. urtean karlistek eta liberelek bertan egin zuten topo, Muniainpean, Artozki ordoan hildako anitz suertatuz. Erregebidet ondoan omen daude lurperaturik, atzendurik.

Zubia ere bota zuten karlistada hontan, lemixikoan bezala bertalde.

Trajedien artean lerrokatzen ere dut arima galdu zueneko, erran nahi beita, euskaldun luzaz irauan ondoren, erdaldundu zuteneko XX. mendet hastapenetan. Bertzelakatzet gaitza.

Aurten berrehun urte badira ematez egun, herriari su eman zakotela frantsesek 1794. urtean. Espainia-Frantzia arteko Konbentzior gertan etxean erdia kiskaldurik ikusi zuen Artozki, biztanleek, bizia salbatu beharrez, ihesari ematen zakotan bitartean.

Tamalez gehiago bada ere, bego hortan. Makurrak makur aintzina egin zuen herriak eta doi-doi bizirik heldu da gaur egun artio.


Eta bihar? Zeren xakin behar beitzie Itoizko (bailizko) urtegiak bete-betean harrapatzen duela Artozki. Iraganean suak abantxu kiskali eta orai urak itoko ote?

Gaizo Artozki! Ez zira sekulan bizi artoski!





XAKEAN



'Iruñeko Hiria' torneo itxiaren bederatzigarren jardunaldiko partida, 1994ko urtarrilaren 5ean jokatu. Zenon Franco, 2.480 ELOkoa (Paraguay)-Jean Luc Seret, 2.450 ELOkoa (Frantzia).

1) d4, d6; 2) e4, Zf6; 3) Zc3, e5; 4) Zf3, bZ-d7; 5) Ac4, Ae7; 6) 0-0, 0-0; 7) a4, c6; 8) h3, a5; 9) Aa2.

Jokaldi hau ulertzea zaila da. Gero arazoak ekarriko dizkie.

9) ..., d4; 10) Zd4, Zc5; 11) Df3, Db6; 12) Zf5, Af5; 13) Df5, aG-e8; 14) Gd1, Ad8; 15) Gd6, fZ-e4; 16) Gd1, Af6; 17) Gb1, Db4.

Ikusi koadroa. Posizio korapilatsua txurientzat. Baina defentsarik onena eraso dela erakutsiko dute, berdintzeko baizik ez bada ere ('a2-ko' alfilaren mehatxuaz baliatuta).

18) Ae3, Za4; 19) Za4, Da4; 20) Ab3, Db4; 21) Ga1, b5; 22) Dd7, Gd8.

'Af7' jokaldiaren suntsipena galarazteko. Gaztelua babestuta gelditu da, partidaren orekaren truke.

23) Dc6, Ab2; 24) Gd8, Gd8; 25) Gb1, a4; 26) Gb2, b3; 27) Gb3, De1 xa; 28) Eh2, Zf2.

Beltzen presioak azkenean etekinik duela dirudi, baina itxuraz besterik ez. Txuriek, zuhurragoak, ez dute ausardia barkatuko.

29) Df3, Zd1; 30) Gd3.

Ez dago gaztelua aldatzerik (Da8 mate), eta piezaren bat galdu beharko dute, nahitaez. Beltzek jokoa utzi zuten, nolabait partida bota eta gero.


Kobazuloaren barren-barrenean, bakardadean, isiltasunean, iluntasunean, sakontasunaren izkina batean zegoen. Armarri itzel horregatik jakin zitezkeen non zegoen hiriaren sarrera, zaindari zurbil baten antzera goardia egiten baitzuen, bizitza osoa horretan eman zuelarik. Gainera duela milioika urte harri garden bihurtu ziren atomo horiek, argia beren artean iragaterakoan giro mistikoa ematen zioten inguruari, horrela zeukan itzeltasuna eta edertasuna areagotuz.

Armarri erraldoi hori, bernezurrez eginiko kate batez bitan zatitzen zen.

Honek bukaera armarraren amaieran zeukan eta azken bernezurra burezur baten barnean amaitzen zen. Burezuraren goialdea erabat txikituz kolpe baten ondorioa baltitz bezala. Bernezuraren erasotik bi sugek ihes egiten zuten, burezuraren begizuloetatik irteten.

Bernezuraren bi alboetan edertasun paregabea bi mosaiko zeuden. Biek gauza bera zeukaten, makina bat armari eta armari bakoitzaren desberdina zen. Horrela mosaikoari itsugarri zen edertasuna eskainiz, bakoitzak bere berezitasunak baitzeuzkan. Armari-

Armarria




Aritz Andueza

txo bakoitzak bere animalia, bere landare, bere egitura geometriko edota inongo zentzurik ez zeukan mar eta koloreen egitura zeukan. Horrela mosaiko guztia batuz, inor begiratzeaz asper ez zitezkeen egitura sortzen zen, beti baitzegoen ikusteko zerbait berria, bi begiek ez baitzuten balio edertasun hura ondo ikusteko, edertasun hura bereganatzeko. Gainera tokiaren giro mistikoak, jendea inguratu eta bertan geldiarazteko harrapatzen zuten, edertasun hura itsugarria baitzen.

Begiek lan ugari zeukaten irudia ikusi orduko; ederra baitzen, baita itsusia; tristea edukinez, alaitasuna zekarren; argiaren eta eguzkiaren bitartekari, iluntasunaren eta gauaren erreinu; animalia triste

eta itsusien baserri, animalia eder eta osasun onekoen aterbe; lore arraroen erakusle, edozein tokitan ikus zitezkeen lore itsusien larrea; gaua eta egunaren amaigabeko borrokaren zelai.

Dena zekarren armariak; bat ikusi orduko horren ideia edo irudiaren antonomoari zegoen ideia edo irudia agertzen zen. Beraz bide horretatik pasatu behar ziren tratatariak goiz-goizean pasatu behar zuten garaiz ailegatzeko, hor gelditu behar baitzuten beti, horren edertasuna bi begiek bereganatzeko borroka luzean hasteko.



JUANTXO URDIROZ

Euskal deabruak hezur eta haragizkoak dira

Borgesek famatu zuen prozedura. Literatura irakurtzeko ditugun aurritziak direla eta, Borges saiatu egiten zen bere irudimenak sortutako ipuinak saiakera kutsuz zipristintzen. «Hau nire burutikoa da» esan beharrean Borgesek «hau aurkitu nuen nonbait» esaten zuen. Pertsonaia literarioak historikotzat hartzen zituen, eta historikoak literariotzat.

Euskal literaturan ola horrek burdin ona eman du. Atxaga, Sarrionandia, Perurenaren zenbait idazlanek sarrera hori dute. «Hona hemen nonbait aurkitu nuen».

Prozedura hori erabiliz, idazle euskaldun berri batek, hamarkada honetakoa denak, ipuin bat idatzi zuen, eta bere burutikoa zena histo-

ria-saiakeraz jantzi zuen, Ciudad Realgo artxiboan aurkitu zuela eta 1587. urtekoa zela esanez. Gero historilari batek ontzat hartu ipuina, Borges ipuinetan gertatzen den gisan, irudimena errealitate bihurtu eta haren euskaraz agertzen ziren esaldiak hego-nafarrera garaia zirelako ondorioa heldu zen ikertzaileak. 'El Diario Vasco' egunkarian idazlearen lagun batek idazleari zorionak eman iruzurrarengatik eta historilariaren bizkarretik barre egin zuen ederki. Ramon Saizarbitoriak esan duenez, literatura politikan baino maltzur gehiago dago.

Ipuinaren egileak honela sinatzen zuen: Luis de Baygorri y Urmeta (Madrilgo Unibertsitate Autono-



Ipuinak haurdun dagoen sorgin euskaldun baten kontrako epaia kontatzen du.

moa, Antropologia Mintegia). Izenburua '¿Un Anticristo Vasco?, Fábulas de Carioconcia'. Ipuin-agiri historikoak ez zuten ez datarik ez kudeaketa zenbakirik.

Ipuinak sorgin haurdun baten kontrako epaia kontatzen du. Sorgina euskalduna zenez, itzultzaile baten beharra zegoen. Itzultzaile horrek egin zuen itzulpenaren arabera epaitu zuten sorgina. Eta hortxe da ipuinaren gakoa, sorginak esaten duena eta itzultzaileak itzultzen duena guztiz kontrakoak baitira. Ipuina irakurri nahi duenak 'Cuadernos de Etnología-n' aurki dezake, 48. zenbakian. Hona hemen zenbait aipu.

«Sorginari galdetu zioten nor zen bere sakelako haurraren aita, eta honek esan zuen euskeraz *frayde vaçuec ereman nindute lecco esqu-tu vaterat eta han eda neraçy onci vatetic*, erderaz esan nahi duena, deabruarekin hiru gauetz larrutan ari-

tu nintzen. Gero galdetu zioten ea nahita izan zen, eta sorginak erantzun zuen *yndarra caldu nituen vaynan begiac eççaystan laussotu, enuen ninçeçen ahal artu ninduten eta comentuco caperarat ereman: hamberçe frayde vaçuec zaoden eta villostu ninduten* eta honek esan nahi du hamabi urte zituelarik lehendabiziz ageri zitzaioala deabrua, argizko aingeruen gisara, eta askotan harekin larrutan ibili dela (...) eta galdetu zioten nola deitzen zion deabruari eta Maria Barnechekoak erantzun zuen *vatec urresco yrur quoroa zeraçaçan buruam eta appeç guiso yaonçiric zaçon, berçehec oynac yçaçtençioc* (...) atelarik, gaztelanieraz esan nahi duena, ni naiz deabrua eta hemendik aurrera deabruarena besteara ez dut izan nahi, eta Jaungoikoa gorrotatuko dut nire etsairik haundiena balitz bezala, eta emakume epaitua belaunikatu zen».

Joan den astelehenean hasi zen Larraonan Udako Euskal Unibertsitateari. Egun berean, saio osagarrien egitarauaren barne, Txema Preciado EHUko plastika irakasleak, euskal koloreen munduan murgildu zituen bertara hurbildu-

takoak, kulturaren ikuspuntua abiapuntu hartuz. «Euskal kulturak koloreen fenomenoaren izendatzeko era propioa izan zuen eta gaur egun, haren aztarnak bizirik jarraitzen dute». Hauek bilatzea helburu izanik, koloreen munduan aztertu du Preciadok.

Koloreek badakite euskaraz

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Txema Preciado EHUko irakaslea koloreei eta euskal kulturari buruz mintzatu zen astelehenean Iruñean, Udako Euskal Unibertsitateko saio osagarriari hasiera emanez.


Agurainean orain 38 urte sortua, Pedagogia eta Arte Ederretako ikasketak egin zituen Bilbon eta gaur egun Donostiako Maisutza Eskolan da irakasle. Tesia koloreei buruz egin zuen eta une hartatik buru-belarri ekin zion gai honen ikerketari. Kay eta Berlin eta Txillardegiri bezalako autoreen liburu eta lanak irakurri eta gero, hauen ikuspegia zabaldu eta osatu asmoz burutu ditu hainbat ikerketa, nahiz eta aitatasuna Txillardegiri egotzi. «Hainbat kategoria kromatikoko unibertsalak dira baina hizkuntza bakoitzak badu koloreen fenomenoaren ulertzeko era propioa berezia». Hala uste du Txema Preciadok eta bere lana euskararen modu berezi hau aztertzea

Koloreen munduan euskal ikuspegi bat egon da eta gaur egun ere horren aztarnak bizirik jarraitzen du.

izan da. Are gehiago, bere ustez haren aztarnak gaur egun ere bizirik daude, «maila batean behintzat».

Aztarna hauek bilatu eta, antza, Aramaio herrian (Araba) aurkitu ditu, bertako baserritarren artean. «Aramaiok oso ezaugarri edo baldintza zehatzak ditu, bertako euskara oso arkaikoa da, kutsatu gabekoa, uharte baten antzeko herria baita». Iraultza Industrialaren garaian gazteek baserritik kalera joan behar izan zuten lan bila baina bertan geratu zirenek eta «gaur egungo baserritar zaharrek ere» antzinako ikuspegia, izendapen berezi hori gorde egin dute.

«Euskarak, euskal kulturak, koloreak izendatzeko era edo modu berezi eta propioa izan du, bestelako hizkuntzekin alderatuz gero ikus daitekeena». Txema Preciadok adibide garbia jartzen du: «Berde kategoria azaltzeko euskal hitzik ez dago. Urdinaren kasua ere berezia da. Baserritarrek adibidez, kolorea azaltzeko 'azul' hitza erabiltzen zuten baina urdin hitza, berriz, ez zen kolorea, ogiak denboraren poderioz hartzen zuten itxura adierazteko erabiltzen zen, adibidez, edo ardi mota bat zehazteko».



Txema Preciadok kolorea izan du aztergai UEUn.

ELENA ASTIGARRAGA

«Koloreak adierazteko hitz gutxi ditugu»

E. E. / IRUÑA

■ Euskarak koloreak adierazteko jatorrizko hitz gutxi ditu, gehienak erdaratik hartuak dira. Zuria, beltza, gorria, horia eta urdina dira jatorrizkoak eta gaintzekoak maileguzkoak. Hala ere, Txema Preciaden ustez, «honek ez du inongo urritasunik esan nahi, gero eta hitz gutxiago egonda, bakoitzak eremu semantiko handiagoa baitu».

Bestalde, koloreen sinbologiaren aldetik ere berezitasunik eta zer erranik badu euskarak, nahiz eta mendebaldeko eske-

mak eskuratzen ari, Preciaden ustez. Zuria, adibidez, garbitasunaren sinbolotzat hartu izan da, oro har, birjintasunaren sinbolotzat, «baina euskaraz kontrako esanahia ere badu». Adibidez, 'langile zuri' esamoldea erabiltzen da alferra den langilea adierazteko.

Hala ere, koloreen sinbologiaren gai honetan hainbat zehaztapen egitea beharrezkotzat jotzen du Preciadok. Hain zuzen ere, bere ustez ezinbestekoa den galdera plazaratu du: «Kultura bakarra al da?». Kultura zer den ere zehaztu beharreko kontua da be-

re ustez. «Argi dago kultura bat baino gehiago daudela edo, gutxienez, erreferente kultural bat baino gehiago, hizkuntza bat baino gehiago».

Makrokulturaz ere hitz egiten du berak. Horren adierazle garbia da «gero eta gehiago inposatzen ari den mendebaldeko kultura». Mendebaldeko kulturaren eragina nabarmena da, are gehiago gazteengan. «Honen eskemak barneratzen ditugu etengabe eta honek badu eraginik, bai koloreen izendapenean baita sinbologian bertan ere».

Aramaioko baserritar zaharrek antzinako koloreen izendapena gordetzen dute oraindik.

Aramaioko baserritar zaharrek izendapen hau gorde dute baina gazteen artean nolabaiteko galtzea sumatzen da, Preciaden ustez. Galtze hau mendebaldeko kulturaren ikuspegiaren nagusitasunaren ondorioa da bere hitzetan, «gazteek mendebaldeko eredu errazago barneratzen baitute». Bertako gazte askok, adibidez, «ez zekien ile urdina zer zen, beraiantzat urdina arropan edo kuadernotan edo edozein gauzatan aurkitzen den tinta kolorea baita».

Hala ere, Aramaioako gain, badaude euskararen aberastasunaren bestelako adibideak, hala nola Ondarroan. «Bertan, erdarazko *pescado azul* adierazteko 'arrain berdie' erraten dute eta arrain gorria ere ezberdintzen dute».

Bakoitzaren bizimodu eta beharrezanek izendapen honetan eragin handia dute Preciaden ustez, «nekazaritzatik bizi den norbaiten ikuspegia ez da industriaren lan egiten duenarena, noski». Gizon eta emakumezkoen artean ere ezberdintasunak daude, kolorea bigarren mailako gaitzat jo izan baita eta ondorioz emakumezkoen kontutzat. «Loreak, jantziak... emakumezkoen gaitzat jo izan dira eta koloreek hauekin harreman zuzena dute. Lurra, abereak eta antzekoak, gizonezkoen gaitzat hartu dira beti eta bestelako kategoria erabiltzen dituzte».

Preciadok erran duenez, maila batzuetan antzinako izendapenen aztarnak begi-bistakoak badira ere, «izan den bilakaera historikoa ukazina da». Koloreak izendatzeko hitzen gaur eguneko eta antzinako esanahiak ez datoz bat, aldatu egin dira eta batzuk gorde egin badira ere, zenbait leku eta eremutan, beste batzuek zuten esanahia galdu egin dute».

«Koloreen ikerketan gauza bixi asko aurkitu dit —dio Preciadok— eta horietako bat kolorea adierazteko euskaraz hitzik ez egotea da». Honek zentzu berezi bat dauka, bere ustez. «Koloreak elementuen ezaugarri gisa sortzen dira, lehen maila batean baina modu abstraktuan bigarren maila batera egin beharke genuke salto. Euskara ez da bigarren maila honetara ailegatu, beharrik ez zuelako. Erdararen eraginez iritsi da».

«Zoinen den gaiztoa popülua!»

PATXI HUARTE / IRUÑA

PATXI HUARTE.— Ostiralero NAFARKARIA n argitaratzen duzun tira elitista xamarra dela diote batzuk. Egia al da epaimahaikideei berexiki zuzendua dagoela?

ZALDI EROA.— Inolaz ere ez!!! Nire pertsonaiak bizirik daude. Tirak egiteko momentuan nik xulo batetik begiratu eta ikusten dudana besterik ez dut isladatzen. Noski Jatorren Yakinza zabalagatik askotan neuk ere ez ditut ulertzen. Orain dela gutxi jakin nuen Eduardo Gil Bera idazle bat dela

HUARTE.— Irakurri duzu?

ZALDI EROA.— Bai, gaztelaniaz.

HUARTE.— Ez al dizu lotsa ematen idazle euskaldun bat erderaz irakurtzea?

ZALDI EROA.— Beno, ez. Egia esan, nire ama hizkuntza gaztelania da. Gehienbat gaztelaniaz irakurtzen dut, eta komikiak ere erderaz pentsatzen ditut. Esate baterako, 'TMEO-n' argitaratzen ditudanak. Hala eta guztiz ere, filosofia ez euskaraz, ez erderaz ez dut asimilatzen ahal. Nahiaago ditut 'Kutsidazu bidea, Ixabel' moduko liburuak. Oso ona.

HUARTE.— Beste batzuek diote komikiak euskaraz egiten dituzula erderaz eginez gero lortuko ez zenukeen arrakasta lortzeko.

ZALDI EROA.— Zoinen den gaiztoa popülua! Nire amak egunero «ikusi duzu zein ona Orozek egin duen tira?» galderarekin agurtzen nau. Nik ez nuke horrelako arrakastarik izango, nahiz eta erderaz jardun, hori segurua. Baina ni, gehien bat, euskalduna sentitzen naiz eta naizen gauza orotaz barre egin nahi dudalako egiten ditut tirak euskaraz. Geure buruaz barre egiteak faxismotik urruntzen gaitu. Faxistek, gauza jakina da, ez dute sekula bere ideiez barre egiten.

HUARTE.— Zure tirtan ez da emakumerik ageri. Gizonezkoak bakarrik ageri dira...

ZALDI EROA.— Beno, jum, rejum, rejum! Bai... baina bada-



Patxi Huarte Rikardo Arregi saria jasotzeko unean. EDURNE KOCH

go ardi bat! Lulubel du izena. Zehazki ez da emakumea eta ez du emakume baten papera betetzen... Beno, hau ezabatu faborez. Etzazu argitaratu, badaezpada. Esango dut badudala asmoa pertsonai femenino bat sartzeko, ekologista bat eta kitto.

HUARTE.— Gaien aldetik, ez al zaizu aspergarria egiten beti euskara gora, euskara behera ibiltzea?

ZALDI EROA.— Zuri bai?

HUARTE.— Bai.

ZALDI EROA.— Intsumisioaz ere aritzen naiz. Xabi Karruru pertsonaia kartzelaratu zidatenetik oso kontzientziatua nabilt. Esan bezala, ekologismoaz aritzeko asmoa ere badaukat. Haatik, euskara da nire gai nagusia eta hala izango da beti. Nik euskaldun mundu txiki honetatik atera ditut nire eguneroko patatak eta hori eskertzekoa da. Zor gastronomiko bat daukat euskararekin! Eguneroko herria bededinka nadila!!!, ikurrina txiki bat astintzen dudala. Ondoren AEKra noa lanera, indarberritua.

HUARTE.— Hitz egin piska bat

«Nire pertsonaiak bizirik daude. Tirak egiteko unean xulo batetik begiratu eta ikusten dudana besterik ez dut isladatzen».

Nafarroa Kapitainari buruz. Ez al dira surrealisteak Marte planetan kokatzen dituzun historioak?

ZALDI EROA.— Surrealistak? Batere ez! Gure errealtate gordiña azaltzen dut. Iruñean behintzat euskaraz aritzen naizenean planeta batera teletransportatua sentitzen naiz, non lau martzianok martzianoen kultura eta hizkerari eutsi nahian gabiltzan. Zentronikora euskarazko klaseak ematera joaten direnek superheroi tratu merezi dute, beraiena misiolaritza baino latzagoa da eta.

HUARTE.— Pertsonai batekin hasi zinen, baina geroztik ugaldu egin dira.

ZALDI EROA.— Bai, allah da (jainko bakarra). Adiskide ba-

tek esan zidan nire pertsonalitatearen zati desberdinak direla: Noski Jator intelektual itxurakoa, Ardia integrista eta inuxentea, Lorittoa gaztelaniazalea eta ziniko hutsa eta Karruru nire karikatura. Mundu txiki bat egin nahi nuen, ez pertsonai bakarrek istorioak, eta nire ustez lortu dut. Egunen batean tiren bilduma bat argitaratzen bada bistan geldituko da erabili ditudan loturak. As-tean behin egiteko zenbait irakurlerentzat korapilatsu samarra bada ere, ohizkoentzat eskertzekoa izango dela uste dut.

HUARTE.— Zure lanetan zerk du garrantzi gehiago: gidioiak edo marrazkiak?

ZALDI EROA.— Gidoiak, ez bairik gabe. Marrazkiei dago kienez, oso irakasle ona izan dut, Jokin Larrea maixu eza-guna. Berak berriz oso ikasle txarra izan du. Ez naiz marrazkilari aparta eta, gainera, oraindik ez dut nire estiloa aurkitu.

HUARTE.— Rikardo Arregi saria alde batera utzita, zer suposatu du zuretzat NAFARKARIA lehendabiziko aletik jardun izanak?

ZALDI EROA.— NAFARKARIA da mundu mundialeko gehigarri hoberena. Eta Alberto Barandiaranek, gure jefek, Karrarako marmol txurian taiatua dirudi. Hain da langilea eta adoretua! Askotan, ohar-kabea, mailukada bat ematen diot buruan eta esaten dut: «Parla!», Miguel Angelek Moisesekin egin zuen bezalatsu. NAFARKARIAKO kolaborazionistak ere, orohar, primerakoak dira eta sari hau eta halako mila merezi dituzte. Gauza bat aitortu nahi nuke: Nik, jai-ki orduko, 'Gora NAFARKARIA! Gora gure gehigarria!' oihukatzen dut. Eguneroko, bai, zin dagizut.

HUARTE.— Lehen 'Garaziko herria bededinka nadila' oihukatzen duzula esan duzu.

ZALDI EROA.— Benetan? Alda ezazu, bada. Nahiago dut gure gehigarria goraitpatzen eta, gainera, zer zor diogu guk Garaziko herriari?

Patxi Huarte

KOMIKIGILEA



SOSLATA

Patxi Huarteren alter egoa

Esku artean duzun orrialde hau Patxi Huartek eta bere alter egoa den Zaldi Eroak bete dute oso-osorik. Huartek egin dituen galderak bere buruari erantzun dizkio Zaldi Eroak, euskal kazetari-tzan iraultzailetzat jo daitekeen jenero berrian. Komikia ere berea da, noski (jator), ostiralero bezala. Elkarrizketa ero hau egiteko aitzakia Andoaingo Udalak eskaini digu, Sekzio atalari dagokion Rikardo Arregi saria Noski Jatorren tirari eman baitio aurren. Esan gabe doa bestela ere merezi zuela.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

